

LEHEN HEZKUNTZA: IDAZMENARAKO EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA IRIZPIDEAK

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
2. - Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea, aurrez emandako azterketa-jarraibideak erabiliz.	2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak betez.	2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolaesparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.
2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, eta haren gaia ondorioztatzen duen. 2.2. Ea ulertzen duen eskolan erabiltzen diren testuetan argi adierazten den informazioa: abisuak, oharrak, gonbidapenak eta eskolako testuak. 2.3. Ea testuak zer dioten azaltzen duen, haren zentzu orokorra adieraziz. 2.4. Ea interpretatzen dituen testuko elementu linguistiko eta ez-linguistiko oinarrizkoenak, testua osorik ulertzeko beharrezkoak direnak (lexikoa, irudiak, tipografia eta testuaren egitura). 2.5. Ea, laguntza jasota, ulermen-arazoak argitzeko estrategiak aplikatzen dituen. 2.6. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuko elementu zehatzei buruzko iritzia ematen duen, deigarriak egin zaizkion neurrian.	2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, bai eta gaia eta egilearen helburua ere. 2.2. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen. 2.3. Ea testuaren ideia nagusiak antzematen dituen. 2.4. Ea kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak erabilita. 2.5. Ea estrategia sinpleak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak. 2.6. Ea, laguntza jasota, bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei buruzko iritzi arrazoitua ematen duen. 2.7. Ea ohiko erabilpen diskriminatzaile batzuk antzematen dituen.	2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, bai eta gaia eta egilearen helburua ere. 2.2. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen. 2.3. Ea testuaren ideia nagusiak laburtzen dituen. 2.4. Ea kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak erabilita. 2.5. Ea estrategia egokiak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak. 2.6. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei eta testuaren formari buruzko iritzi arrazoitua ematen duen. 2.7. Ea antzematen dituen hizkuntzaren erabilpen diskriminatzaile ohikoak.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
6. Eredu argiez baliatuta, haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza- mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz. 6.1.Ea egiten dituen testuak sortzeko prozesuaren urratsak (plangintza egitea, testua idaztea eta testua berrikustea), emandako jarraibideak betez. 6.2.Ea gogoz parte hartzen duen testuaren plangintza egiteko, idazteko eta berrikusteko talde-jardueretan. 6.3.Ea gero eta hobeto idazten duen, idazketaren oinarritzko arauak betez: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat. 6.4.Ea komunikazio-egoerara egokitutako edukiak adierazten dituen. 6.5.Ea egiten duen, laguntza jasota, idatzitako testua berrikusi eta zuzenketaren bat. 6.6. Ea testua txukun eta argi aurkezten duen.	6. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, laguntza jasota: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarria erakutsiz. 6.1. Ea, jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen duen testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta. 6.2. Ea paragrafoen bidez antolatzen duen informazioa. 6.3. Ea oinarritzko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko. 6.4. Ea egoki islatzen dituen aurrez zehaztutako helburuak. 6.5. Ea egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen dituen. 6.6. Ea gramatikako eta ortografiako oinarritzko arauak betetzen dituen. 6.7. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua. 6.8. Ea sortze-eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.	6. Genero eta erabilera-esparru askotako testu idatziak sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, laguntza jasota: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, koherentzia-, zuzentasun-eta kohesio-maila onargarri bat erakutsiz. 6.1. Ea jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen duen testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta. 6.2. Ea paragrafoetan antolatzen duen informazioa. 6.3. Ea oinarritzko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko. 6.4. Ea egoki betetzen dituen aurrez zehaztutako xedeak. 6.5. Ea egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen dituen. 6.6. Ea gramatikako eta ortografiako oinarritzko arauak betetzen dituen. 6.7. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua. 6.8. Ea sortze- eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
7. Lagundu jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez eta erabilpen horren xedea ikastea izanik. 7.1. Ea ikasteko erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bere mailari egokitutako euskarriez baliatuta.	7. Laguntza jasota, informazio- eta komunikazioteknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; betiere, haiek erabiltzeko interesa erakutsiz eta erabilpen horren xedea izanik informazioa biltzea, eredueta oinarritutako testu errazak sortzea eta ikastea. 7.1. Ea informazioa bilatzen duen, ikaslearen mailara egokitutako euskarriez baliatuz. 7.2. Ea testu-prozesadoreen oinarritzko funtzioetako batzuk erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko. 7.3. Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilia.	7. Laguntza jasota, informazio- eta komunikazio teknologiak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, eredueta oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horien erabiltzeko interesa adieraziz. 1. Ea informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten dituen, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz. erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko. 2. Ea testu-prozesadoreen oinarritzko funtzioak erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko. 7.3. Ea behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkeztu dituen eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta - teknologiak emandako jarraibideak betez erabilia. 7.4. Ea harreman pertsonalak egiteko erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
8. Idazketari buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta, jakintza hori erabiliz, idazketa-sistemaren erabilera sendotzea. 8.1. Ea ohartzen den esaldien eta testuen ordena aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak ondorioak dituela. 8.2. Ea ezagutzen dituen ohiko testuetan esaldia, hitza eta silaba. 8.3. Ea landutako ortografia-arauak betetzen dituen.	8. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea, ulermen- eta sorkuntza-arazoak konpontzeko. 8.1. Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz. 8.2. Ea ohartzen den esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez. 8.3. Ea jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen dituen, testuak ulertzeko eta sortzeko. 8.4. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak... 8.5. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua egitean sortutako zalantzak argitzeko. 8.6. Ea bere eta besteren testuetako akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen dituen, jarraibideak erabilia.	8. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak gero eta autonomia handiagoz sortzeko eta berrikusteko. 8.1. Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz. 8.2. Ea ohartzen den esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez. 8.3. Ea, jarraibideak emanda, aplikatzen dituen hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak, testuak ulertzeko eta sortzeko. 8.4. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak... 8.5. Ea nahiko ongi erabiltzen dituen komunikazioegoerarako egokia den erregistro formala edo informala. 8.6. Ea antzematen dituen edozein motatako aurreiritziak adierazten dituzten hizkuntza-estereotipoak beste pertsona batzuek egindako testuetan, eta horiek ez erabiltzen saiatzen den. 8.7. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko. 8.8. Ea jarraibideei atxikita, oinarritzko akatsak antzematen dituen bere eta besteren testuetan, gero eta autonomia handiagoa erakutsiz testuen berrikuspenean eta hobekuntzan.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko terminologia ezagutzea, eta hizkuntza-jardueretan erabiltzea. 9.1. Ea dakien zein diren landutako testu-generoen izenak eta idazketaren kontzeptu eta konbentzio nagusiak (testua, esaldia, hitza, silaba, letra, letra larria, letra xehea eta puntua). 9.2. Ea interesik duen bere idazlanetan ortografia arauak betetzeko.	9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko eta landutako lexikoa ezagutzea, eta hura erabiltzea hizkuntza-jardueretan. 9.1. Ea ulertzen duen zikloan landutako oinarrizko terminologia, testuen sorkuntzari eta berrikuspenari buruzko azalpenak eta jarraibideen jarraipena egiteko 9.2. Ea dakien zer izen dituzten testu-generoek, esaldien elementuek eta esaldi eta hitz motek. 9.3. Ea landutako hizkuntza-elementu oinarrizkoak antzematen dituen, ohikotasunez erabilitako testu anitzekin egindako lanari erreparatuta.	9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko terminologia ezagutzea, eta hura erabiltzea hizkuntza-jardueretan. 9.1. Ea testuak sortzeko eta berrikusteko jardueren azalpenak eta arauak jarraitu ahal izateko terminologia nagusia ulertzen duen. 9.2. Ea testu-generoen izenak, esaldien elementuen eta esaldi- eta hitz moten izenak ezagutzen dituen, eta oinarrizko terminologia hori erabiltzen hasi den, hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan. 9.3. Ea landutako hizkuntza-elementu oinarrizkoak ezagutzen dituen, ohikotasunez erabilitako testu anitzekin egindako lanari erreparatuta.

	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
	14. Gelako eta eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzea, eta haien antolaketa, funtzionamendua eta aukerak ezagutzea. 14.1. Ea irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen dituen (ahozko literaturakoak, idatzizko literaturakoak edo horiekin lotutako beste arte-arlo batzuetakoak), une atseginak igarotzeko. 14.2. Ea ezagutzen duen gelako liburutegiaren funtzionamendua, eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen duen. 14.3. Ea errespetatzen dituen eskolako liburutegia erabiltzeko arauak, eta hura zaintzen laguntzen duen. 14.4. Ea egindako irakurketetatik aterako informazioak eta gogoetak plazaratzen dituen, haiei buruzko elkarriketen harira.	13. Liburutegi-mediatekak erabiltzea, eta idazlanak eta bestelako materialak antolatzeke eta hautatzeko prozedurak ulertzea. 13.1. Ea irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen dituen (ahozko literaturakoak, literatura idatzikoak edo horiekin lotutako beste arte-arlo batzuetakoak), une atseginak igarotzeko. 13.2. Ea eskolako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta bere kabuz erabiltzen duen. 13.3. Ea eskolako liburutegia zaintzen duen eta hari dagozkion mantentze-lanak egiten laguntzen duen. 13.4. Ea egindako irakurketetatik aterako informazioak eta gogoetak plazaratzen dituen, haiei buruzko elkarriketen harira.

1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
14. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasten lagunduko dioten alderdi batzuk identifikatzea. 14.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen. 14.2. Ea egin dituen aurrerapenen balorazio oinarrizkoak egiten dituen. 14.3. Ea, emandako jarraibideak betez, gero eta hobeto zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsetako zenbait.	15. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi batzuk ezagutzea. 15.1. Ea erabiltzen dituen eskola-hiztegiak, kontsultarako emandako materiala eta baliabide teknologiko sinple batzuk, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeke. 15.2. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen. 15.3. Ea bere aurrerapenen balorazio xumeak egin, eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen dituen. 15.4. Ea gero eta hobeto ezagutzen eta zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsetako zenbait. 15.5. Ea onartzen duen akatsak egitea ikasprozesuaren parte dela. 15.6. Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.	15. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi batzuk ezagutzea. 15.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen. 15.2. Ea hiztegiak, kontsultarako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeke. 15.3. Ea neurtzen dituen egin dituen aurrerapenak, eta hobeto ikasi ahal izateko baliabide eta estrategia batzuk ezagutzen dituen. 15.4. Ea bere kabuz erabiltzen dituen eguneroko egitura xumeak, akatsik arruntenak pixkanaka zuzenduz. 15.5. Ea onartzen duen akatsak egitea ikas-prozesuaren zati dela. 15.6. Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.